



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMOIA. SR.IA:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Gasteizen, Lehendakariitzako egoitzan, **2023ko URRIAREN 3an**, 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakariitza, a las 10:00 horas del día **3 DE OCTUBRE DE 2023**, con el siguiente

GAI-ZERREDA

ORDEN DEL DÍA

Aurreko bileraren akta irakurri, eta hala badagokio, onartu.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

LAN ETA ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Erabaki-proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoak Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioaren Patronatuan duen ordezkaria kargutik kendu eta beste bat izendatzekoa.

2

Propuesta de Acuerdo de cese y nombramiento del representante de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el Patronato de la Fundación Estatal para la Formación en el Empleo.

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin.

3

Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Dekretu-proiektua, Pasaia Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide bat kargutik kendu eta beste bat izendatzekoa.

4 Proyecto de Decreto de cese y designación de un vocal del Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Pasaia.

Dekretu-proiektua, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide bat berritzekoa.

5 Proyecto de Decreto de renovación de un vocal del Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Bilbao.

Erabaki-proposamena, Munduko Landaguneari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Familia Nekazaritzari buruzko VIII. Konferentzia Globalaren antolaketa bultzatzeko.

6 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa al Foro Rural Mundial, para impulsar la organización de la VIII Conferencia Global sobre Agricultura Familiar.

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Dekretu-proiektua, Euskadiko Ondarearen Erregelamendua onartzekoa.

7 Proyecto de Decreto por el que se aprueba el Reglamento del Patrimonio de Euskadi.

Erabaki-proposamena, onarpena ematekoa Gasteizko udalak erabakitako 1.080 m²-ko lursail baten doako lagapenari, Federico Baraibar BHIko eta Ekialde II BHIko lurzatia handitzeko.

8 Propuesta de Acuerdo de aceptación de la cesión gratuita de una parcela de 1.080 m² de superficie acordada por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, para ampliar la parcela del IES Federico Baraibar y del IES Ekialde II.

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Erabaki-proposamena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin kudeaketa-gomendioa izenpetzeko baimena ematekoa, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuko oposizio-faseko lehenengo probaren "A" eta "B" zatien garapena kudeatzeko.

9 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de la encomienda de gestión con el Instituto Vasco de Administración Pública, para la gestión del desarrollo de la Parte "A" Y "B" de la primera prueba de la fase de oposición del procedimiento selectivo convocado mediante Orden de 19 de diciembre de 2022, del Consejero de Educación.

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, agindu hau finantzatzeko 2023-2024 ikasturtean: eskola-garraioko banakako esleipenen deialdia egiten duena desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, eskola-garraioko eskubidea badute eskola-garraiari buruzko 69/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

10 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar la Orden por la que se convocan asignaciones individualizadas de transporte escolar para alumnado con necesidades educativas especiales vinculadas a discapacidad, que tenga derecho al transporte escolar de conformidad con lo establecido en el Decreto 69/2015 sobre el transporte escolar, en el curso 2023-2024.

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILADEPARTAMENTO DE
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
VIVIENDA Y TRANSPORTES

- | | | |
|--|----|--|
| Erabaki-proposamena, Visarekin hitzarmen bat izenpetzeko baimena ematekoa, Bilboko udal-mugarteko Zorrotzaurreko eremu mistoko 2. jarduketa integratuko RZ-16 lurzatian errentamendu babesturako erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eraikitzeko. | 11 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con Visesa, para la construcción de viviendas de protección oficial de régimen general (VPO) con destino al arrendamiento protegido, en la Parcela RZ-16 de la Actuación Integrada 2, del Área Mixta de Zorrotzaurre, en el término municipal de Bilbao. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa larrialdi-kontratu bat, Amorebieta Geralekua-Zugaztieta ibilbidean, 3+176 KPan kolapso-arriskuagatik pontoia konpontzeko obra egiteko. | 12 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del contrato de emergencia para la ejecución de la obra de reparación de pontón por riesgo de colapso en el PK 3+176, trayecto Amorebieta Geralekua-Zugaztieta. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa larrialdi-kontratu bat, zuntzeko bypass-obra egiteko Bilbao-Donostia lineako 82/024 eta 82/599 KPen artean, Meagako tunela konpondu eta zerbitzuan jartzeko larrialdi-obran. | 13 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del contrato de emergencia para la ejecución de la obra de bypass de fibra de la obra de emergencia para la reparación y puesta en servicio del túnel de Meagas, entre los PKs 82/024 y 82/599 de la línea Bilbao-Donostia. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa larrialdi-kontratu bat, komunikazio-bypassaren obra egiteko (koadretak lotzea) Bilbao-Donostia lineako 82/024 eta 82/599 KPen artean Meagako tunela konpondu eta zerbitzuan jartzeko larrialdi-obran. | 14 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del contrato de emergencia para la ejecución de la obra del bypass de comunicaciones (empalme de cuadretes), para la obra de emergencia para la reparación y puesta en servicio del túnel de Meagas entre los PKs 82/024 y 82/599, de la línea Bilbao-Donostia. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa larrialdi-kontratu bat, laguntza-zerbitzua emateko bus-transbordoari, Meagako tuneleko obrak direla eta. | 15 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del contrato de emergencia para la ejecución del servicio de apoyo al transbordo en autobús por obras en el túnel de Meagas. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa larrialdi-kontratu bat, transbordorako bus-zerbitzua emateko, trenen zirkulazioa eten baita Meagako tunela konpontzeko obrak direla-eta. | 16 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del contrato de emergencia para la ejecución del servicio de autobuses para el transbordo por interrupción de la circulación ferroviaria, debido a las obras de reparación del túnel de Meagas. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa larrialdi-kontratu bat, transbordo-zerbitzua indartzeko Donostiako Aste Nagusiko jaietan, Meagako tunela konpontzeko obrak direla eta. | 17 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del contrato de emergencia para la ejecución del servicio de refuerzo por las fiestas semana grande de Donostia al servicio de transbordo por obras de reparación del túnel de Meagas. |



Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa larrialdi-kontratu bat, Meagako tunela konpontzeko eta zerbitzuan jartzeko obra egiteko Bilbao-Donostia lineako 82/024 eta 82/599 KPen artean.

18 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del contrato de emergencia para la ejecución de la obra de reparación y puesta en servicio del túnel de Meagas entre los PKs 82/024 y 82/599, de la línea Bilbao-Donostia.

Erabaki-proposamena, onarpena ematekoa Errenteriako Esnabide 32. sektoreko B2 lurzatiaren doako lagapenari, Errenteriako Udalak egin baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren alde.

19 Propuesta de Acuerdo de aceptación de la cesión gratuita de la Parcela B2 del Sector 32 Esnabide de Errenteria realizada por el Ayuntamiento de Errenteria a favor de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Erabaki-proposamena, honako hau baimentzekoa: 2023rako hitzarmen bat sinatzea Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzarekin, konfiskatutako ondasunen funtsaren kontura.

20 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio, para el año 2023, con la Delegación del Gobierno para el Plan Nacional sobre Drogas, con cargo al fondo de bienes decomisados.

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Dekretu-proiektua, Alday fundazioa gizarte-interesekoa dela aitortzekoa.

21 Proyecto de Decreto por el que se declara de interés social a la fundación Alday.

Dekretu-proiektua, "Adinekoentzako Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria" arautu eta 2023ko ediziorako deialdia egiten duena.

22 Proyecto de Decreto por el que se regula el "Premio de Buenas Prácticas en Amigabilidad para las personas mayores" y se convoca la edición del año 2023.

Erabaki-proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen II. Plan Estrategikoa (2023-2026) onartzekoa.

23 Propuesta de Acuerdo por el que se aprueba el II plan estratégico de servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2023-2026.

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Erabaki-proposamena, honako hau baimentzekoa: lankidetzak-hitzarmen bat sinatzea Kultura eta Kirol Ministerioarekin, Ondare Bibliografikoaren Katalogo Kolektiboa egiteko.

24 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con el Ministerio de Cultura y Deporte, para la elaboración del Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico.

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO



Erabaki-proposamena, Bilboko, Gipuzkoako eta Arabako Merkataritza Ganbarekin sinatu beharreko lankidetzahitzarmena aintzat hartzekoa, "Euskadi Bono-Comercio/Euskadi Bono Denda" programa gauzatzeko.

25

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del convenio de colaboración a suscribir con las Cámaras de Comercio de Bilbao, Gipuzkoa y Araba, para la ejecución del programa "Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono Denda".

Erabaki-proposamena, Euskadiko Udalen Elkartarekin (Eudel) sinatu beharreko jarduera-protokolo orokorra aintzat hartzekoa. Protokolo horren helburua da hiriko merkataritza-sektorea suspertzea eta, horretarako, kontsumoa sustatzeko sistema bat garatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduen eskura eta herritarren irismenean jarritako bonuen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremu osoan ondasunak, produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeko. "EuskadiBonoDenda 2023".

26

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del protocolo general de actuación a suscribir con la Asociación de Municipios Vascos (Eudel), para la reactivación del sector comercial urbano desarrollando un sistema de incentivo y estímulo al consumo mediante bonos puestos a disposición de los diferentes establecimientos comerciales y de servicios relacionados con la actividad comercial urbana radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco y al alcance de la ciudadanía, con la finalidad de consumir bienes, productos y servicios en todo el ámbito territorial del País Vasco. "EuskadiBonoDenda 2023".

IZENDAPENAK ETA KARGU-
KENTZEAK
LEGE BILTZAR-EKIMENAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 29a.

En Vitoria-Gasteiz, 29 de septiembre de 2023.

SIN./FDO.: GARAMENDI LANDA, OLATZ.
GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA
JAURLARITZAREN IDAZKARIA
CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA
DEL GOBIERNO



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

**LEHENDAKARIAREN BAIMENA,
GOBERNU KONTSEILUAREN
2023ko URRIAREN 3ko BILERA
TELEMATIKOKI EGITEKO**

**AUTORIZACIÓN DEL LEHENDAKARI
PARA QUE LA REUNIÓN DEL
CONSEJO DE GOBIERNO DE 3 DE
OCTUBRE DE 2023 SE CELEBRE DE
FORMA TELEMÁTICA**

KONTUTAN IZANDA

2022ko maiatzaren 24an, Gobernu Kontseiluak erabaki bat hartu zuela, Gobernu Kontseiluaren bilera telematikoak puntualki egiteko jarraibideak onartzen dituen, erabaki horren arabera, beharrezkoa dela lehendakariak, berariaz eta arrazoituta, baimentzea bilera horiek telematikoki egitea.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua, Olatz Garamendi Landa andrea Euskaditik kanpo egongo dela urriaren 3an, Gobernu Kontseilua egingo den egunean, beraz, ezingo dela Vitoria-Gasteizen egingo den bilerara bertaratu.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagokiola Gobernuaren Idazkaritza.

Gobernuaren Idazkaritzaren berezko lanak egin ahal izateko, beharrezkoa dela Olatz Garamendi Landa sailburua, eskumen hori esleituta duen sailaren titularrak, Gobernu Kontseiluaren dagokion bilkuran fisikoki edo telematikoki agertzea, idazkari-lanak egiteko ardura duen pertsona izanik.

CONSIDERANDO

Que con fecha de 24 de mayo de 2022 el Consejo de Gobierno adoptó un Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la celebración puntual de reuniones telemáticas de Consejo de Gobierno, siendo necesario conforme al mismo que el Lehendakari autorice, de forma expresa y motivada, la celebración de dichas reuniones de forma telemática.

Que, con motivo del viaje institucional a Chile de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, Dña. Olatz Garamendi Landa estará fuera de Euskadi el día 3 de octubre, fecha de la celebración del Consejo de Gobierno por lo que no podrá asistir físicamente a la reunión a celebrar en Vitoria-Gasteiz.

Que, de conformidad con lo establecido en el artículo 7.c) del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, le corresponde al Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno la Secretaría del Gobierno.

Que a fin de poder realizar las labores propias de la Secretaría de Gobierno es necesario que la Consejera Dña. Olatz Garamendi Landa, titular del Departamento que tiene atribuida dicha competencia, comparezca física o telemáticamente en la correspondiente sesión del Consejo de Gobierno, como



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

persona encargada de ejercer la función de secretaría.

Egun horretan ebatzi beharreko gai zerrendaren izaera ohiko eta arruntagatik berebiziko garrantzirik duen punturik ez dagoenez, aukera egokia dela bilera telematikoko bat egiteko, lehen aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakian adierazitako baliabide teknikoak erabiliz.

Que dado el carácter ordinario del orden del día y a la vista de los asuntos a resolver, es una oportunidad adecuada para realizar una reunión telemática utilizando los medios técnicos que se indican en el Acuerdo de Consejo de Gobierno antes referido.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek aukera ematen dutela, bideokonferentzia bidez, irudiaren eta soinua bi noranzkoetan eta aldi berean komunikatzeko; eta hortaz, geografikoki urruti dauden bi pertsonaren edo pertsona-talderen arteko denbora errealeko ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa izatea. Halaber, bermatu egiten dutela eztabaidetan eta hausnarketetan askatasunez parte hartzea, bai eta idazkari-lanak egiteko aukera ere.

Que los medios técnicos indicados en esta autorización permiten, mediante videoconferencia la comunicación bidireccional y simultánea de imagen y sonido y, por tanto, la interacción visual, auditiva y oral en tiempo real entre dos personas o grupos de personas geográficamente alejadas, garantizando la libre participación en los debates y deliberaciones, y la posibilidad de ejercer las funciones de secretaría.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek modu egokian bermatzen dituztela, halaber, parte-hartzaileen identitatea eta segurtasuna, kanpoko interferentziarik eza, esku hartzeko askatasuna eta eztabaiden izaera sekretua edo erreserbatua.

Que los medios técnicos indicados en esta autorización garantizan también de forma adecuada la identidad y seguridad de las personas participantes, la ausencia de interferencias externas, la libertad de intervención y el carácter secreto o reservado de los debates.

BAIMENA EMATEN DUT

AUTORIZO

1.- Gobernu Kontseiluak 2023ko urriaren 3an egingo duen bilera telematikoki egiteko, baimen honetan adierazitako moduan.

1.- Que la reunión del Consejo de Gobierno de 3 de octubre de 2023, se celebre de forma telemática, en los términos expresados en la presente Autorización.

2.-Vitoria-Gasteiztik eta Txiletik telematikoki konektatuko diren kideek ZOOM plataforma digitala erabili beharko dute, esteka honetan sartuta:

<https://euskadi.zoom.us/j/97926694749>

2.- Que las y los miembros del Consejo de Gobierno que se conecten telemáticamente desde Vitoria-Gasteiz y desde Chile, deberán de utilizar la plataforma digital ZOOM, accediendo al siguiente enlace:

<https://euskadi.zoom.us/j/97926694749>



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

3.- Aipatutako baimena bilkura-deialdiari erantsi dadila, gai-zerrendarekin batera.

3.- Que la presente autorización se incorpore a la convocatoria de la sesión junto con el orden del día.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 25ean.

2023.09.2

Iñigo Urkullu Renteria

5 14:39:30

+02'00'

Iñigo Urkullu Renteria

Lehendakaria.